

LEZOKO UDALA
Aparkaldi mugatua arautzen duen ordenantza
Bekoerrota kiroldegiko aparkalekuak eta Altzateko igerilekuak.

Bekoerrota kiroldegiko eta Altzateko igerilekuetako aparkaleku mugatuak arautzea:

Arrazoia.

Proposamen hau Lezoko Udaltzaingo-buruaren txostena kontuan hartuta egin da. Txosten horretan, kiroldegiko zein Altzateko igerilekuetako aparkalekuetan ibilgailuak txandaka ez dabilzala adierazten da, kirol-instalazio bat dela eta aipatutako kirol-instalazioen erabiltzaileei zerbitzua eman behar zaiela esaten da. Aipatutakoagatik, bi aparkalekuetan aparkaleku faltarengatik arazo larriak sortzen ari dira.

Lege-oinarria.

Legeek udalerriei espazio publikoa arautzeko eta kudeatzeko ematen dizkieten eskumenez gain, 2008ko urriaren 1ean onartutako Trafikoa Arautzeko Ordenantzak 28. artikuluan ezartzen du eremu edo auzo jakin batzuetan aparkatzeko neurriak arautzeko, aparkalekuen txandaketa bermatzeko eta horretarako espazio publikoa modu zehatz batean kudeatzeko aukera ere, jasotzen dute.

Proposamena.

«Arrazoia» atalean azaldutakoa kontuan hartuta, Burutzagitza honek ordenantza moduan honako araudi hau proposatzen du.

Lezoko kiroldegiko aparkalekuetarako eta Lezoko igerilekuetako aparkalekuetarako aparkaldi mugatuak arautzen dituen ordenantza.

1. artikulua.

Ordenantza hau herri barruko bideetako pertsonen eta ibilgailuen trafikoaren arloan, Lezoko Udalaren Trafikoa Arautzen duen Ordenantzaren 28. artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeak udalerritari emandako eskumenaren arabera egin da.

2. artikulua.

Ordenantza honen xedea da eragindako eremuetan aparkaldi mugatua arautuko duten arauak ezartzea. Ordenantza honen 6. artikuluan aipatzen dira arau horiek.

3. artikulua.

Kiroldegiko aparkalekuaren eraginpeko eremuan aparkatzea mugatzeko helburuak honako hauek dira: alde batetik, aparkatzeko eskaerari behar bezala erantzutea, helburu orokorren barruan, eta, horrela, aparkalekuaren txandaketa bermatzea; are

gehiago udal kirol-instalazioak bi aparkalekueetatik hurbil daudela kontuan hartuta. Bestetik, erabilera publikoko aparkalekua erabilera kudeatzea du helburu, horiek behar bezala betetzen direla bermatzeko neurriak ezarriz.

4. artikulua.

Araudi honek zehazten du 6. artikuluan aipatzen diren eragindako eremuetan, zein den gehieneko aparkaleku-denboraren muga, baita aipatu eremu horietan aparkatu ahal izateko baimena esleitzeko baldintzak.

5. artikulua.

Salbuespen gisa, alkateak edo dagokion ordezkariak egokitzen jotzen dituen neurriak hartu ahal izango ditu, bai ordenantza honetan araututako aparkaleku-baldintzak aldatuz edo bertan behera utziz denbora baterako, ibilgailuen trafikoaren inguruabarrek edo antzeko beste egoera batzuek hala behartzen dutenean.

6. artikulua.

Ordenantza honen xede diren aparkatzeko mugapenek eragindako eremuak behar bezala seinaleztatuko dira, eta Bekoerrotako kiroldegiko eta Altzateko igerilekueetako aparkalekueetan dauden aparkaleku guztiei aplikatuko zaie.

Aparkatzeko ordutegi mugatua urteko egun guztietan izango da indarrean, jaiegunak barne, 00:00etatik 23:59ra; hau da, uneoro. Aparkatzeko gehieneko denbora 4 ordukoa izango da udaltzaingoak sortuko duen datu-basean izena eman gabe duten ibilgailuentzat. Datu-basean izena emana dutenek ordu mugarik gabe aparkatu ahal izango dute

7. artikulua.

Udalak ordu mugarik gabe aparkatzeko baimendutako ibilgailuen erregistro bat sortuko du. 8. artikuluan deskribatutako baldintzak betetzen dituzten herritar guztiek, inolako kosturik gabe, sarrera-erregistro bidez eskatu ahal izango dute Lezoko udaltzaingoak sortuko duen datu-basean izen emateko, ordu mugarik gabe aparkatu ahal izango duten ibilgailuen matrikulekin.

Era berean, dagokion udal-arduradunaren iritziz egoera bereziak (gaixotasuna, lan-arrazoiak, etab.) egiaztatzen dituzten eta udaleko sarrera-erregistroaren bidez hala eskatzen duten pertsonen matrikulak ere, sartu ahal izango dira datu-basean, ordu mugarik gabe aparkatzeko.

8. artikulua.

Ordu-murrizketarik gabe aparkatzeko baldintzak honako hauek izango dira:

A) Lezon erroldatuta egotea eta ibilgailua udal horretan erroldatuta izatea.

B) Udalarekin zorrik ez izatea.

C) Asegurua indarrean izatea.

D) Udalaren erregistroan egon behar duen ibilgailuaren matrikula Lezoko Udaltzaingoak sortuko duen datu-basean sartzeko eskaera egitea.

9. artikulua.

Ordenantza honetako edozein artikulua eta alkatetzak berau garatzeko ematen dituen xedapenak hausten badira, trafikoa eta zirkulazioa antolatzeko arauak urratuko dira, eta ezarritako legezko prozeduraren bidez zigorrak ezarriko dira.

Arau-haustetzat joko dira:

a) Leku berean lau ordu baino gehiago aparkatuta egotea, ordutegi-mugarik gabe aparkatzeko baimena duten ibilgailuen datu-basean izena emanda egon gabe.

10. artikulua.

Ordenantza honetako 9. artikuluan jasotako arau-haustea, arintzat hartuko dira zehapen ondorioetarako.

11. artikulua.

Ordenantza honetan aurreikusten ez diren kasuetarako, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legean, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrean eta trafikoaren arloan indarrean dauden gainerako xedapenetan jasotakoa aplikatuko da.

Lehenengo xedapen gehigarria.

Alkatetzak ordenantzaren interpretazio eta aplikazio egokirako beharrezkoak diren agindu eta jarraibide guztiak emateko ahalmena izango du.

Bigarrenengo xedapen gehigarria.

Lezoko aparkaleku mugatua arautzen duen ordenantzaren arabera aparkaldi mugatuko ohiko txartela duten ibilgailuen matrikulak automatikoki Lezoko Udaltzaingoak sortuko duen datu-basean sartuko dira.

Azken xedapena.

Ordenantza hau, hamaika artikuluz, xedapen gehigarri bakar batez eta azken xedapen batez osatua, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu eta hurrengo egun baliodunean sartuko da indarrean.